

Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

2025-2028

1.- SARRERA

1.1.- Aldez aurreko gogoetak

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak (aurrerantzean, DLO), zioen azalpenean, oro har, eta 8. artikuluan, zehazki, adierazten du administrazio publikoetako organoek eta dirulaguntzak ezartzeko proposamena egiten duten ente guztiek Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (aurrerantzean, DPE) egin behar dutela dirulaguntzak ezarri baino lehen, eta plan estrategiko horretan honako alderdi hauek zehaztu behar dituztela: plana aplikatzean lortu nahi dituzten helburu eta ondorioak, helburu zein ondorio horiek lortzeko epea, aurreikusitako kostuak, eta finantzaketa-iturriak. Horretan guztian, aurrekontu-egonkortasunerako helburuak bete beharko dituzte, eta publikotasunaren, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta bazterkeriarik ezaren printzipioak bermatu, bai eta helburuak betetzea eta baliabide publikoen esleipen zein erabilera efizientea ere.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6. artikuluan ezartzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak garatu behar duen dirulaguntzen jarduera aldez aurretik planifikatu behar da, eta, horretarako, dagokion dirulaguntzen plan estrategikoa (DPE) onartuko da. Plan horretan zehaztu behar da, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betez, zer helburu eta ondorio lortu nahi diren, zer epetan lortu behar diren, zenbateko kostuak aurreikusten diren, zer finantzaketa-iturri dituzten

eta, dirulaguntzen jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, planaren helburuarekin erlazionatutako ekintzak eta adierazleak zein diren. Eta horrela, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa dirulaguntza-politika planifikatzeko tresna da, hots, pertsona publiko edo pribatuen alde funts publikoak esleitzea dakarrena, trukean zuzeneko kontraprestaziorik egon gabe; baina, betiere, helburu edo jokabide jakin bat betetzearen, jarduera edo proiektu jakin bat egitearen edo betebeharrak material eta formal jakin batzuk betetzearen baldintzapean; eta erabilera edo interes sozialeko jarduera bat sustatzearen edo helburu publiko bat lortzea sustatzearen esparruan beti. Era berean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren dirulaguntza-jarduketak barne hartu behar dituen publikotasun- eta gardentasun-printzipioak kontuan hartuta, DPEa haren egoitza elektronikoan argitaratuko da. Aipatu Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean xedatutakoaren arabera, sailen eta haiei atxikitako sektore publikoko entitateen dirulaguntzen planak kasuan kasuko sailburuak onetsiko ditu; dena den, gaiaren berezitasuna dela-eta, posible da sailaz azpiko eremuak diren dirulaguntza-planak edo sailei atxikitako entitateei bakarrik dagozkien dirulaguntza-planak prestatzea, eta hori da, hain justu, hizpide dugun kasua.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 1/2015 Zirkularrak ezartzen duenez, «EAEko Auzitegi Nagusiak (Administrazioarekiko Auzietako Salak), 2015eko urtarrilaren 21eko 48/2015 Epaian, deusez deklaratu zuen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren agindu bat, agindu hori ez zetorrelako ordenamendu juridikoarekin bat, dirulaguntza ezarri aurretik ez zutelako Dirulaguntzen Plan Estrategikorik onartu; alegia, ez zutelako bete Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua xedatutakoa. Ondorioz, dagozkion DPEak egiteko eta onartzeko neurriak ezarri behar dituzte EAEko Administrazio Orokorreko sailek eta dirulaguntzen programak sustatzen dituzten haren organismo autonomoek, zeren eta halako planik ez egoteak deusez bihur ditzake dirulaguntzen deialdiak».

Beraz, «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sail guztiek, bai eta dirulaguntza-programak sustatzen dituzten haien organismo autonomoek ere, beren dirulaguntza-plan estrategikoa onartu beharko dute. Bertan, dirulaguntzei buruzko jardun guztia jaso beharko dute eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako programen aurrekontu-memoretan jasotako helburuak, ekintzak eta adierazleak hartu beharko dituzte kontuan».

Hori guztia dela eta, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak, Eusko Jaurlaritzaren organismo autonomoa izanik, Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau prestatu du, DLOn ezarritakoari jarraikiz.

1.2.- Izaera juridikoa

DPEa kudeaketa-tresna programatikoa da, arau-mailarik gabekoa. Arau-mailarik ez duenez, ez du sortzen ez eskubiderik ez betebeharririk onuradun izan daitezkeen horientzat, ez eta Administrazioarentzat ere. Plana eraginkorra izan dadin, dirulaguntza-lerro desberdinak jarri beharko dira martxan; eta ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideei ere begiratu behar zaie, besteak beste.

Plan hau, halaber, Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren politika antolatzeko tresna ere bada; hori horrela, DPEaren helburua erabilera edo interes sozialeko jardura bat sustatzea da, edo xede publiko bat lortzeko bultzada ematea, horretarako dirulaguntzak emanda. Alde horretatik, lortu nahi dituen interes publikoak eta DPEaren indarraldian eskuragarri izango dituen baliabideak aztertu ondoren, Gogorak, efikazia- eta efizientzia-mailak hobetearren, eskubidea izango du DPEan bildutako dirulaguntza-programetan egoki deritzen aldaketa guztiak egiteko, aintzat hartuta DPEaren urteroko berrikusketek, dirulaguntzen programa bakoitzean ezarritako adierazleak bete diren egiaztatzeko azterketek edo bestelako inguruabarrek erakutsitakoa.

Bestalde, DPEa bultzatzen duen organismo autonomoak eginiko jarraipen-txostenen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak igorritako txostenen emaitzetan ikusten bada dirulaguntza batzuek ez dituztela helburuak espero bezala betetzen, edo inbertitutako baliabideen mailan ez dutela ematen emaitza egokia, dirulaguntza horiek aldatu egin ahalko dira, edo efikazagoak eta efizienteagoak diren beste batzuekin ordeztu, edota, hala badagokio, kendu.

Era berean, 2026ko, 2027ko eta 2028ko ekitaldietako aurrekontu-legeetan onartzen diren dirulaguntza izendunak plan honi erantsi beharko zaizkio, ondoz ondoko eranskinetan.

1.3.- Printzipio Orokorrak

Dirulaguntzen arloko araudiak, bai eta administrazio publikoen arlokoak ere, **jarduteko printzipio orokor** batzuk ezartzen ditu. Printzipio horiek **plan estrategikoaren funtsezko osagaiak dira**, eta dirulaguntzen kudeaketan gidari izan behar dira.

- a) **Publizitatea eta lehia**, aurrez deialdia eginez, eta lehia eta berdintasuna bermatuz funts publikoak banatzeko orduan; nolahi ere, **aukera izango da dirulaguntzak zuzenean emateko** ere, aplikatzekoa den araudian ezarritakoaren arabera, aurrez aurrekontu nahikoa badago.
- b) **Objektibotasuna** funts publikoak esleitzeko prozesuan.
- c) **Berdintasuna eta bazterkeriarik eza** herritarren, sektoreen eta kolektiboen artean.
- d) **Gardentasuna** baliabide publikoak esleitzeko prozesuan, hala dirulaguntzak ematean nola emaitzak argitaratzean.
- e) **Helburuak betetzeko efikazia**, emandako dirulaguntzen jarraipena egiteko eta kontrolatzeko prozedura bat ezarrita.
- f) **Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia**, dirulaguntzak baloratzearen eta proiekturik efizienteenei esleitzearen bidez.

Printzipio horiek guztiak Gogoraren dirulaguntza-lerro eta -programa guztietan aplikatuko dira.

2.- ESPARRU SUBJEKTIBOA ETA DENBORAZKOA

Dirulaguntzen plan estrategiko honetan, Gogora - Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren 2025-2028 aldirako dirulaguntzak daude bilduta, oinarritzat hartuz Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko azaroaren 27ko 4/2014 Legeak emandako eskumenak. Lege horretan xedatutakoaren arabera, Gogora izaera administratiboko organismo autonomo bat da, eta Administrazio Orokorrean memoriaren eta bizikidetzaren politika publikoa bultzatzeko erantzukizuna eta eginkizuna bere gain dauzkan sailari atxikita dago, haren egitura organikoa ezartzen duen dekretuari jarraikiz.

4/2014 Legeak xedatzen duenaren arabera, eginkizun hauek izango ditu GOGORA institutuak:

- Oroitzapena.
- Kontserbazioa.
- Ikerketa.
- Prestakuntza.
- Parte-hartzea eta zabalkundea.
- Integrazioa.
- Kontsulta.

Era berean, azaroaren 3ko 204/2014 Dekretuak, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Estatutuei buruzkoak, adierazten du eginkizun horiek berak garatzea dagokiola institutuari.

DPEa hertsiki lotuta dago Gogoraren 2025-2028 aldirako Jarduketa Planarekin, eta, hala, GOGORAK ezarrita dituen helburu, ekimen eta proiektuetan ardaztuko da institutuak diruz lagun dezakeen jarduera, dagokion aldi zehatzerako.

Gogoraren 2025-2028 aldirako Jarduketa Planak hiru helburu hauek ditu ardatz:

- 2025-2028 aldirako helburu nagusia Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua dagokion espazio sozialean kokatzea da, eta Gogora bihurtzea herritarrei

memoria kritiko eta gogoetatsua, eta zorrotasun historikoan eta gure iraganarekiko etengabeko eztabaidan oinarritua eraikitzeko behar diren tresnak emateko gai izango den erakunde publikoa.

- Funtsezko oinarria eta Gogoraren egiteko nagusia da komunitate horiek eraikitzen dituzten memoria-kontakizun guztiak gutxieneko bera betetzea: giza eskubideak eta bizikidetzaren erabat errespetatzea.
- Organismoari koherentzia ematea, inprobisazio- eta deskoordinazio-kutsua saihesteko, eta memoria-politikak diseinatzeko eta abian jartzeko erabiltzen diren baliabide publikoak optimizatzeko.
- Gogora organismo dinamizatzaile bihurtzea; izan dezala gaitasuna memoria demokratikoaren eguneroko eraikuntzan hutsuneak hautemateko, eta horiek betetzeko behar diren baliabideak jarri eta ahalegina egiteko. Azken finean, rol pasibo bat izatetik rol proaktiboa izatera aldatzea.

Helburu horiek 7 ekimen barne hartzen dituzten 4 lan-ildotan zertzen dira, eta dirulaguntzen plan honetako dirulaguntza-lerroen oinarri dira lan-ildo horiek:

1. Kudeaketa-plana:

- 1. ekimena: Memoria-politika publikoak koordinatzea.
- 2. ekimena: Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea sustatzea eta garatzea.

2. Dokumentazio-plana:

- 3. ekimena: Gogoraren Dokumentazio Zentroa sustatzea

3. Ikerketa-plana:

- 4. ekimena: Ikerketak sustatzea.
- 5. ekimena: Desagertutako pertsonak bilatzea.

4. Hedapen-plana:

- 6. ekimena: EAEko herritarrenganako gizarte-transmisioa egitea.
- 7. ekimena: Hezkuntzaren esparruan zabaltzea.

Denbora-eremuari dagokionez, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6. artikulua lehenengo apartatuak ezartzen duenez, DPEak lau urteko indarraldirako aurreikuspenak jasoko ditu, beraz, 2025etik 2028ra bitartekoak.

Komenigarritzat jotzen da DPE honen indarraldia bat etorraraztea Gogoraren Jarduteko Planaren indarraldiarekin (2025-2028), entitate baten dirulaguntzen plan estrategikoa ezinbestez izango baita haren jarduteko plan globalaren zati espezifiko bat; eta, Gogoraren kasuan, beharrezkoa izango da haren jarduteko planen indarraldia bat etortzea Legebiltzarraren legegintzaldiekin eta Eusko Jaurlaritzaren ondorengo agintaldiekin, plan horiek zehaztu nahi baitute Eusko Jaurlaritzaren jardunbidea antolamendu-eremu zehatz batean.

3.- HELBURU OROKORRAK

Aurreko guztia aintzat hartuta, DPEaren bidez, helburu orokor hauek lortu nahi dira:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikuluan jasotako agindua betetzea; artikulua horrek dirulaguntzak eman baino lehen dagokien plan estrategikoa zehazteko betebeharra ezartzen die administrazio publikoen mendeko organo eta enteei.
- Gogorak dirulaguntzen arloan izango duen plangintza estrategikoa dokumentu espezifiko batean zehaztea, Gogorak bere jarduketa-eremuetan kudeatzen dituen laguntza-lerro eta -programa guztiak bilduz.
- Tresna bateratu batean, Gogoraren dirulaguntza-jarduerako programak, helburuak eta aurrekontu-adierazle guztiak zehaztea, eta jarduera horien kostua adieraztea.

4.- DIRULAGUNTZA-LERROAK

DPE honetan jasotako jarduketa-ildo estrategikoak zehaztuta daude dokumentu honen eranskinetan:

- **I. ERANSKINA. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZA-LERROAK: HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK**
- **II. ERANSKINA ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZA-LERROAK: AURREKONTU-KONPROMISOAK ETA FINANTZAKETAREN EHUNEKOA, FINANTZAKETA PUBLIKOA OROTARA HARTUTA**
- **III. ERANSKINA. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZA-LERROAK: SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA**

5.- BETEARAZPEN-EPEAK

Oro har, dirulaguntzek urtebeteko betearazpen-epea izango dute, eta urte naturala izango da justifikaziorako hautatuko den aldia.

Aurrekoa gorabehera, kasu batzuetan, Gogoraren dirulaguntza-programetan, komeni da aurretik aipatutako epea gaindituko duen justifikazio-aldi bat ezartzea. Kasu horietan, hala dirulaguntza eman ahal izateko aurrekontu-partidek nola dirulaguntza-deialdien arauak berariaz jasotzen dute justifikazio-epea dirulaguntza eman eta hurrengo ekitaldiko martxoaren 31ra arte luzatuko dela.

6.- EMANDAKO DIRULAGUNTZAK AURRETIK ORDAINITzea

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera, *«kopuru batzuk aurreratuta ordaindu ahal izango dira orobat; hau da, justifikazioa aurkeztu baino lehen ere entregatu ahal izango dira, finantzaketa hori beharrezkoa baldin bada dirulaguntzaren helburu diren jarduerak aurrera eramateko. Aukera hori eta bermeen araubidea berariaz adierazi beharko dira dirulaguntza erregulatzen duen araudian»*. Deialdietako oinarrietan, kopuru batzuk aurrez ordaintzeko aukera xedatu ahal izango da, arrazoi egokiak emanda, eta betiere dirulaguntza motaren finantzaketa-beharren, onuradunen, eta jarduketa publiko guztiak gidatu behar dituzten efikazia eta efizientzia printzipioen arabera.

7.- PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Plan hau urtero eguneratuko dugu. Ekitaldi bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen eguneratuko da, EAeko Aurrekontu Orokorren Legeetan ezarritakoa aintzat hartuta.

Gogora arduratuko da plan honen aplikazioa kontrolatzeaz eta emaitzak ebaluatzeaz.

8.- PLAN ESTRATEGIKOAREN EBALUAZIOAREN EMAITZAK 2025. URTEAN

GOGORAREN egungo DPEak, 2025-2028 aldiari dagokionak, 14 dirulaguntza-lerro ditu:

1. Gernikako Bakearen Museoa Fundazioaren proiektu museologikoa eta museografikoa ustiatzeko eta garatzeko aurrekontua finantzatzea.
2. 1936-1945 urteen arteko errepresio frankistaren eta Ordena Publikoaren Auzitegiaren biktimen errolda egitea.
3. 1936-1978 aldiko giza eskubideen urraketari buruzko oinarrizko txostena garatzea.
4. Desagertutako eta errepresaliatutako pertsonak bilatzea eta ikertzea.
5. Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek edo bestelako toki-entitateek memoria demokratikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia.
6. Liburuak argitaratzeko dirulaguntzen deialdia egitea.
7. Dokumentalak egiteko dirulaguntzen deialdia egitea.
8. Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteek edo fundazioek memoria historikoa eta demokratikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia.
9. Martxoak 3 Memoriagunea Fundazioaren ustiapen-aurrekontua finantzatzea.

10. Martxoak 3 Memoriagunea Fundazioaren proiektu museologikoa eta museografikoa garatzea.
11. Eusko Jaurlaritzaren hiztegi biografiko bat egitea (1936-1937).
12. Gerra Zibileko gorpuak desobiratzeko eta desagertuak bilatzeko planaren DNA bankua garatzea.
13. Martxoak 3 Memoriagunea sortzeko, Martxoak 3 elkartearekin lankidetzan aritzea.
14. Urduñako Duintasunaren Kolunbarioa handitzea.

1. dirulaguntza-lerroak, «Gernikako Bakearen Museoa Fundazioaren proiektu museologikoaren eta museografikoaren ustiapen- eta garapen-aurrekontua finantzatzea» izenekoak, 140.000 euroko zuzkidura izan zuen, 2024ko ekitaldiko kopuru bera, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 33,3.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatu zen. Hori justifikatzeko, dagokion memoria eta egindako gastuak aurkeztu ziren 2025eko abenduaren 31 baino lehen, eta osorik justifikatu zen.

Dirulaguntza-lerroaren jarraipenari dagokionez, komenigarritzat jotzen da 2026-2028 aldirako mantentzea.

2. dirulaguntza-lerroa, Valentín de Foronda Institutuak (EHU) «1936-1945 urteen arteko errepresio frankistaren eta Ordena Publikoko Auzitegiaren biktimen errolda egitea». 40.000,00 euroko zuzkidura izan zuen, 2024ko ekitaldiaren kopuru berean, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100ean.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatu zen. Hori

justifikatzeko, dagokion memoria eta egindako gastuak aurkeztu ziren 2025eko abenduaren 31 baino lehen, eta osorik justifikatu zen.

Dirulaguntza-lerroaren jarraipenari dagokionez, komenigarritzat jotzen da diruz lagundu beharreko zenbatekoari eustea 2026-2028 ekitaldietarako, Ordena Publikoko Auzitegiaren sumarioen bidez frankismo berantiarreko memoria demokratikoaren ikerketa-proiektua garatzeko.

«1936-1978 aldiko giza eskubideen urraketari buruzko oinarrizko txostenaren garapena» izeneko 3. dirulaguntza-lerroaren zuzkidura, 2025erako aurreikusia, 195.000 eurokoa zen, 2024an bezala, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatu zen. Hori justifikatzeko, dagokion memoria eta egindako gastuak aurkeztu ziren 2025eko abenduaren 31 baino lehen, eta osorik justifikatu zen, eta aurkeztutakoa ez zen dirulaguntza honetarako aurreikusitako gehieneko zenbatekora heldu.

Dirulaguntza-lerroaren jarraipenari dagokionez, komenigarritzat jotzen da 2026-2028 aldirako mantentzea.

4. dirulaguntza-lerroak, «Desagertutako eta errepresaliatutako pertsonak bilatzea eta ikertzea» izenekoak, 125.000,00 euroko zuzkidura izan zuen 2024rako, eta 125.000 eurokoa 2025erako, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatu zen. Hori justifikatzeko, dagokion memoria eta egindako gastuak aurkeztu ziren 2025eko abenduaren 31 baino lehen, eta osorik justifikatu zen, eta aurkeztutakoa ez zen dirulaguntza honetarako aurreikusitako gehieneko zenbatekora heldu.

Dirulaguntza-lerroaren jarraipenari dagokionez, komenigarritzat jotzen da 2026-2028 aldirako mantentzea.

5. dirulaguntza-lerroak, «Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek edo bestelako toki-entitateek memoria demokratikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia» izenekoak, 137.500,00 euroko zuzkidura izan zuen 2024rako, eta 100.000,00 eurokoa 2025erako, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Hainbat hartu-eman eta bilera egin ziren inplikaturako eragileekin, bai eta Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoarekin ere, dirulaguntza hori Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearekin bateragarria zen aztertzeko; izan ere, KEBen txostenetan ondorioztatzen denaren arabera, eskumen-azterketa bat egin behar zen. Azkenik, 2025ean ez zen dirulaguntza horren deialdirik egin, eta 2026-2028 aldirako dirulaguntzen lerroaren jarraipena erabaki gabe dago.

6. eta 7. dirulaguntza-lerroak, «Liburuak argitaratzeko dirulaguntzen deialdia» eta «Dokumentalak egiteko dirulaguntzen deialdia», lehen «Dokumentalak egiteko eta liburuak argitaratzeko dirulaguntzen deialdia» gisa identifikatzen zen dirulaguntza-lerroan bateratzen ziren. 2024rako 80.000 eurokoa izan zen, eta 2025erako, aurreikusitako zuzkidura 80.000,00 eurokoa zen, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

2025-2028ko plan estrategikoan, dirulaguntza-lerro horiek bi lerrotan banatu ziren.

«Liburuak argitaratzeko dirulaguntzen deialdia» izeneko 6. dirulaguntza-lerroaren 2025eko ekitaldirako aurreikusitako zuzkidura 40.000 eurokoa izan zen. Guztira, 8 eskaera jaso ziren; horietatik 4 baztertu egin ziren eta beste 4 esleipendun izan ziren.

Hori justifikatzeko, 2025eko abenduaren 31 baino lehen, deialdian aurreikusitako justifikazio-agiriak eta amaierako proiektua aurkeztu behar ziren.

Dirulaguntza-lerroaren jarraipenari dagokionez, komenigarritzat jotzen da 2026-2028 aldirako mantentzea.

«Dokumentala egiteko dirulaguntzen deialdia» izeneko 7. dirulaguntza-lerroaren 2025eko ekitaldirako aurreikusitako zuzkidura 80.000 eurokoa izan zen. Guztira, 10 eskaera jaso ziren, 3 eskabidetan atzera egin zen, 3 eskaera baztertu ziren eta 4 erakunde izan ziren adjudikaziodunak.

Hori justifikatzeko, 2025eko abenduaren 31 baino lehen, deialdian aurreikusitako justifikazio-agiriak eta amaierako proiektua aurkeztu behar ziren.

Dirulaguntza-lerroaren jarraipenari dagokionez, komenigarritzat jotzen da 2026-2028 aldirako mantentzea.

«Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteek edo fundazioek memoria historikoa eta demokratikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia» izeneko 8. dirulaguntza-lerroak 112.500,00 euroko zuzkidura izan zuen 2024rako. 2025erako 112.500,00 euroko zuzkidura aurreikusi zen, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Hori justifikatzeko, 2026ko martxoaren 31 baino lehen, deialdian adierazitako justifikazio-agiriak aurkeztu beharko dira. Beraz, dokumentu honen datan ezin da dirulaguntzen lerro honen emaitza ezarri.

Dirulaguntza-lerroaren jarraipenari dagokionez, komenigarritzat jotzen da 2026-2028 aldirako mantentzea.

9. dirulaguntza-lerroa, «Martxoak 3 Memoriagunea Fundazioaren ustiapen-aurrekontua finantzatzea» izenekoa, 2023ko aurrekontuan sortu zen, eta 40.000 euroko zuzkidura aurreikusia zuen fundazioaren lehen urteko jarduna finantzatzeko. Aurreko ekitaldietan ezin izan zen gauzatu, fundazioaren erregistroa 2025eko otsailera arte atzeratu baitzen. Zuzkidura finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 90,63 zen.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatu zen. Hori

justifikatzeko, dagokion memoria eta egindako gastuak aurkeztu ziren 2025eko abenduaren 31 baino lehen, eta osorik justifikatu zen, eta aurkeztutakoa ez zen dirulaguntza honetarako aurreikusitako gehieneko zenbatekora heldu.

10. dirulaguntza-lerroa, «Martxoak 3 Memoriagunea Fundazioaren proiektu museologikoa eta museografikoa garatzea», 2023an sortu zen, eta 250.000,00 euroko guztizko zuzkidura du Martxoak 3 erakusketa-gunearen proiektua gauzatzeko. Aurreko dirulaguntza-lerroan ezarri den bezala, aurreko ekitaldietan ezin izan zen gauzatu, fundazioaren erregistroa 2025eko otsailera arte atzeratu baitzen. Zuzkidura finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 90,63 zen.

«Eusko Jaurlaritzaren hiztegi biografiko bat egiteko (1936-1937)» 11. dirulaguntza-lerroa 2025ean sortu zen. 60.500 euroko zuzkidura du Biography & Parliament Ikerketa taldeak Eusko Jaurlaritzaren hiztegi biografiko bat (1936-1937) egiteko lana finantzatzeko, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatu zen. Hori justifikatzeko, dagokion memoria eta egindako gastuak aurkeztu ziren 2025eko abenduaren 31 baino lehen, eta osorik justifikatu zen.

Dirulaguntza-lerroaren jarraipenari dagokionez, komenigarritzat jotzen da 2026ko ekitaldian zehar mantentzea.

«Gerra Zibileko gorpuk desobiratzeko eta desagertuak bilatzeko planaren DNA bankua garatzea» izeneko 12. dirulaguntza-lerroaren zuzkidura 125.000 eurokoa izan zen 2024. urterako, eta 2025ean ere 125.000 eurokoa izaten jarraitu zuen, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatu zen. Hori justifikatzeko, dagokion memoria eta egindako gastuak aurkeztu ziren 2025eko abenduaren

31 baino lehen, eta osorik justifikatu zen, eta aurkeztutakoa ez zen dirulaguntza honetarako aurreikusitako gehieneko zenbatekora heldu.

Dirulaguntza-lerroaren jarraipenari dagokionez, komenigarritzat jotzen da 2026-2028 aldirako mantentzea.

«Martxoak 3 Memoriagunea sortzeko, Martxoak 3 elkartearekin lankidetzan aritzea» izeneko 13. dirulaguntza-lerroak 35.000 euroko zuzkidura izan zuen 2024rako. 2025erako aurreikusitako zuzkidura, berriz ere, 35.000 eurokoa izan zen, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatu zen. Hori justifikatzeko, dagokion memoria eta egindako gastuak aurkeztu ziren 2025eko abenduaren 31 baino lehen, eta osorik justifikatu zen.

14. dirulaguntza-lerroa, «Urduñako Duintasunaren Kolunbarioa handitzea», 2025. urtean sortutakoa da, 60.000 euroko zuzkidura zuena Urduñako Duintasunaren Kolunbarioa handitzeko obra finantzatzeko, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatu zen. Hori justifikatzeko, dagokion memoria eta egindako gastuak aurkeztu ziren 2025eko abenduaren 31 baino lehen, eta osorik justifikatu zen, eta aurkeztutakoa ez zen dirulaguntza honetarako aurreikusitako gehieneko zenbatekora heldu. Urduñako Udalak aurkeztutako memoriak honako hau dio:

Urduñako Udalak Duintasunaren Kolunbarioa handitzeko proiektua garatzeko beharrezkoak diren jarduketak egin ditu, proiektu teknikoa idaztea eta obrak kontratatzeko prozedura izapidetzea barne. Prozedura hutsik geratu zen, ez baitzen eskaintzarik aurkeztu.

Horren ondorioz, eta beste lizitazio-prozedura bat hasi arte, emandako dirulaguntzaren esparruan benetan egindako eta justifikatutako gastu bakarrak proiektu teknikoa idaztearen ondoriozko ordainsari profesionalak, proiektua idatzi duen arkitektoarenak dira.

Ondorioz, udalak gastu horiei aplikatu ez zaien dirulaguntzaren kopurua itzuliko du, dirulaguntza emateko ebazpenean eta dirulaguntzak arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.

Dirulaguntza-lerro horren jarraipena egiteke dago dokumentu honen datan.

9.- 2025-2028 PLAN ESTRATEGIKOAREN EGUNERAKETA 2026 URTERAKO

GOGORAREN egungo DPEak, 2026ko otsailean eguneratuta, 16 dirulaguntza-lerro ditu:

1. Gernikako Bakearen Museoa Fundazioaren proiektu museologikoa eta museografikoa ustiatzeko eta garatzeko aurrekontua finantzatzea.
2. Ordena Publikorako Auzitegia ikertzea.
3. 1936-1978 aldiko giza eskubideen urraketari buruzko oinarritzko txostena garatzea.
4. Desagertutako eta errepresaliatutako pertsonak bilatzea eta ikertzea.
5. Liburuak argitaratzeko dirulaguntzen deialdia egitea.
6. Dokumentalak egiteko dirulaguntzen deialdia egitea.
7. Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteek edo fundazioek memoria historikoa eta demokratikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia.
8. Martxoak 3 Memoriagunea Fundazioaren ustiapen-aurrekontua finantzatzea.
9. Martxoak 3 Memoriagunea Fundazioaren proiektu museologikoa eta museografikoa garatzea.
10. Eusko Jaurlaritzaren hiztegi biografiko bat egitea (1936-1937).
11. Gerra Zibileko gorpuak desobiratzeko eta desagertuak bilatzeko planaren DNA bankua garatzea.
12. Frankismoaren mendeko sexu- eta genero-aniztasunari buruzko ikerketa: Errepresioa eta ekintza kolektiboa.

13. Memoria historikorako dirulaguntzen azterlana.

14. Euskadiko Emakumea Babesteko Patronatuaren funtzionamenduari buruzko ikerketa

15. Derioko Udalaren kolunbarioa

16. Elgoibarko kolunbarioa handitzea.

1. dirulaguntza-lerroak, «Gernikako Bakearen Museoa Fundazioaren proiektu museologikoaren eta museografikoaren ustiapen- eta garapen-aurrekontua finantzatzea» izenekoak 2026rako, 140.000 euroko zuzkidura du, 2025eko ekitaldiko kopuru bera, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 33,3.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatzen da. Hori justifikatzeko, urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen justifikazio-memoria bat aurkeztu behar da. Memoria horretan, egindako gastuak zehazten dira, dagozkien dokumentuekin batera.

2. dirulaguntza-lerroa, "Ordena Publikorako Auzitegiaren ikerketa" egiteko. 2025eko ekitaldian 40.000,00 euroko zuzkidura izan zuen, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100. 2026rako 100.000,00 euroko zuzkidura aurreikusi da, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100. Igoera hori beharrezkoa da Ordena Publikorako Auzitegiaren sumarioen bidez Frankismo Berantiarrean memoria demokratikoa ikertzeko proiektua garatzeko.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatzen da. Hori justifikatzeko, urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen justifikazio-memoria bat aurkeztu behar da. Memoria horretan, egindako gastuak eta izandako diru-sarrerak zehazten dira, dagozkien dokumentuekin batera.

«1936-1978 aldiko giza eskubideen urraketari buruzko oinarritzko txostenaren garapena» izeneko 3. dirulaguntza-lerroak 2025eko ekitaldian 195.000 euroko zuzkidura izan zuen, hau da,

finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100. 2026rako 160.000 euroko zuzkidura aurreikusi da, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatzen da. Hori justifikatzeko, urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen justifikazio-memoria bat aurkeztu behar da. Memoria horretan, egindako gastuak eta izandako diru-sarrerak zehazten dira, dagozkien dokumentuekin batera.

«Desagertutako eta errepresaliatutako pertsonak bilatzea eta ikertzea» izeneko 4. dirulaguntza-lerroak 2025eko ekitaldian 195.000 euroko zuzkidura du, 2025. urteko kopuru bera, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatzen da. Hori justifikatzeko, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen justifikazio-memoria bat aurkeztu behar da. Memoria horretan, egindako gastuak eta izandako diru-sarrerak zehazten dira, dagozkien dokumentuekin batera.

2026. urterako "Liburuak argitaratzeko dirulaguntzen deialdia" izeneko 5. dirulaguntza-lerroak 40.000 euroko zuzkidura du, 2025. urterako kopuru bera, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako dirulaguntza hau instrumentalizatzen da GOGORAREN zuzendariaren ebazpenaren bidez; horretan, alderdi hauek jaso dira, besteak beste: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) hartutako konpromisoak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa; f) ordaintzeko epeak; g) justifikatzeko modua.

Hori justifikatzeko, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen, deialdian aurreikusitako justifikazio-agiriak eta amaierako proiektua aurkeztu behar dira.

"Dokumentalak egiteko dirulaguntzen deialdia" izeneko 6. dirulaguntza-lerroak 80.000 euroko zuzkidura du 2026rako, 2025. urterako kopuru bera, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako dirulaguntza hau instrumentalizatzen da GOGORAREN zuzendariaren ebazpenaren bidez; horretan, alderdi hauek jaso dira, besteak beste: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) hartutako konpromisoak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa; f) ordaintzeko epeak; g) justifikatzeko modua.

Hori justifikatzeko, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen, deialdian aurreikusitako justifikazio-agiriak eta amaierako proiektua aurkeztu behar dira.

"Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteek edo fundazioek memoria historikoa eta demokratikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia" izeneko 7. dirulaguntza-lerroak 112.500 euroko zuzkidura du 2026rako, 2025. urterako kopuru bera, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako dirulaguntza hau instrumentalizatzen da GOGORAREN zuzendariaren ebazpenaren bidez; horretan, alderdi hauek jaso dira, besteak beste: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d) kudeaketa-organoa; e) hartutako konpromisoak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa; f) ordaintzeko epeak; g) justifikatzeko modua.

Hori justifikatzeko, hurrengo ekitaldi bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen, deialdian adierazitako justifikazio-agiriak aurkeztu behar dira.

2026. urterako, "Martxoaren 3ko Memoriaren Fundazioaren ustiapen-aurrekontua finantzatzea" izeneko 8. dirulaguntza-lerroak 40.000 euroko zuzkidura du, 2025. urterako kopuru bera. Zuzkidura finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 90,63 da.

Hori justifikatzeko, urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen, urteko kontuak, dagokion auditoretza-txostena eta justifikazio-memoria bat aurkeztuko dira. Memoria horretan, egindako gastuak eta izandako diru-sarrerak zehazten dira, dagozkien dokumentuekin batera.

"Memorial 3 de marzo fundazioaren proiektu museologikoa eta museografikoa garatzea" izeneko 9. dirulaguntza-lerroak 250.000 €-ko zuzkidura du 2026. urterako, 2025. urterako kopuru bera. Hala ere, Gasteizko San Frantzisko Asiskoaren elizan, etorkizuneko Martxoaren 3ko Memorialaren egoitzan, obrak atzeratu zirenez, 2025eko zatiaren zati txiki bat baino ez zen gastatu. Zuzkidura finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 90,63 da.

Hori justifikatzeko, urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen, urteko kontuak, dagokion auditoretza-txostena eta justifikazio-memoria bat aurkeztuko dira. Memoria horretan, egindako gastuak eta izandako diru-sarrerak zehazten dira, dagozkien dokumentuekin batera.

«Euzko Jaurlaritzaren hiztegi biografiko bat egiteko (1936-1937)» 10. dirulaguntza-lerroak 30.000 euroko zuzkidura du 2026. urterako. Dirulaguntza-lerroa 2025. urtean sortu zen, 60.500 euroko zuzkidurarekin, Biography & Parliament Ikerketa taldeak Euzko Jaurlaritzaren hiztegi biografikoa (1936-1937) egiteko egindako lana finantzatzeko, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatzen da. Hori justifikatzeko, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen justifikazio-memoria bat aurkeztu behar da. Memoria horretan, egindako gastuak eta izandako diru-sarrerak zehazten dira, dagozkien dokumentuekin batera.

"Gerra zibileko gorpuak lurpetik ateratzeko eta bilatzeko planaren DNA Bankua garatzea" izeneko 11. dirulaguntza-lerroak 100.000 euroko zuzkidura izan zuen 2025. urterako, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100. 2026rako aurreikusitako zuzkidura, berriz ere, 180.000 eurokoa da, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatzen da.

Hori justifikatzeko, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen justifikazio-memoria bat aurkeztu behar da. Memoria horretan, egindako gastuak eta izandako diru-sarrerak zehazten dira, dagozkien dokumentuekin batera.

"Frankismoko sexu- eta genero-aniztasunari buruzko ikerketa: errepresioa eta ekintza kolektiboa" izeneko 12. dirulaguntza-lerroa 2026an sortu zen, eta 60.000 euroko zuzkidura aurreikusi zen, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatzen da.

Hori justifikatzeko, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen justifikazio-memoria bat aurkeztu behar da. Memoria horretan, egindako gastuak eta izandako diru-sarrerak zehazten dira, dagozkien dokumentuekin batera.

"Memoria historikoaren kalte-ordainen azterketa" izeneko 13. dirulaguntza-lerroa 2026an sortu zen 50.000 euroko zuzkidurarekin, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatzen da.

Hori justifikatzeko, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen justifikazio-memoria bat aurkeztu behar da. Memoria horretan, egindako gastuak eta izandako diru-sarrerak zehazten dira, dagozkien dokumentuekin batera.

«Euskadiko Emakumea Babesteko Patronatuaren funtzionamenduari buruzko ikerketa» izeneko 14. dirulaguntza-lerroa 2026an sortu zen, 35.000 euroko zuzkidurarekin, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatzen da.

Hori justifikatzeko, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen justifikazio-memoria bat aurkeztu behar da. Memoria horretan, egindako gastuak eta izandako diru-sarrerak zehazten dira, dagozkien dokumentuekin batera.

"Derioko Udalaren Kolunbarioa" izeneko 15. dirulaguntza-lerroa 2026an sortu zen, 300.000 euroko zuzkidurarekin. Derioko kolunbarioaren proiektua ideia-lehiaketaren garailea izan zen. Hala ere, proiektuaren aurrekontua kontuan hartuta, dokumentu honen datan ezin da ezarri finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatzen da.

Hori justifikatzeko, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen justifikazio-memoria bat aurkeztu behar da. Memoria horretan, egindako gastuak eta izandako diru-sarrerak zehazten dira, dagozkien dokumentuekin batera.

"Elgoibarko Kolunbarioa handitzea" izeneko 16. dirulaguntza-lerroa 2026. urtean sortutako dirulaguntza-lerro bat da eta 60.000 euroko zuzkidura du, hau da, finantzaketa publikoaren guztizkoaren % 100.

Dirulaguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko Aurrekontu Orokorretan dago aurreikusita, eta Gogorako zuzendariaren ebazpen baten bidez gauzatzen da.

Hori justifikatzeko, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen justifikazio-memoria bat aurkeztu behar da. Memoria horretan, egindako gastuak eta izandako diru-sarrerak zehazten dira, dagozkien dokumentuekin batera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako dirulaguntza guztiz-guztiak Gogorako zuzendariaren ebazpenen bidez gauzatuko dira. Ebazpen horietan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu dira: a) xedea; b) zenbatekoa; c) aurrekontu-partida; d)

kudeaketa-organoa; e) onuradunak bere gain hartzen dituen konpromisoak eta aurkeztu behar duen dokumentazioa; f) ordaintzeko epeak; g) justifikatzeko modua.

10.- DPE-A ONESTEA ETA ARGITARATZEA

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Estatutuak onesten dituen 204/2015 Dekretuak esleitutako eskumenetan oinarrituz onartuko du GOGORAK Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eguneratzea.

I. ERANSKINA

ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZA-LERROAK:

HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

HELBURU ESTRATEGIKOA: memoria-politika publikoak koordinatzea

